

PAZIENTEAREN SEGURTASUNA

3. zk. 2021eko iraila



PAZIENTEAREN SEGURTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA



Hirugarren urtez jarraian, OMEk **irailaren 17an** ospatuko du **Pazientearen Segurtasunaren Nazioarteko Eguna**, mundu mailan garrantzitsuak diren gaiak ezagutarazteko, herritarrek segurtasunean parte hartzea bultzatzeko eta pazienteen segurtasuna hobetzeko eta izan daitezkeen kalteak murrizteko ekintzak sustatzeko.

Aurtengo kanpainaren gaia **"amaren eta jaioberrien arreta segurua"** da


emakumeek eta jaioberriek arrisku eta kalte asko izaten dituztelako, erditzean segurtasun gutxiko arreta jasotzen dutenean.

Bada, **«ekin dezagun orain erditze seguru eta begirunetsu baten alde»** lelopean, interesa duten alderdi guztiei dei egiten die erditze seguru eta begirunetsua bermatzeko beharrezkoak diren ekintzak bizkortzeko.

SEGURTASUNA HAURDUNALDIKO, ERDITZEKO ETA ERDIBERRIAROKO PROZESU ASISTENTZIALEAN

Haurdunaldiaren, erditzearen, erdiberriaroaren eta jaioberriaren arretarekin lotutako segurtasun-kultura hobetzea lehentasuna izan da eta da Osasun Sailean eta Osakidetzan, emakumeari eta **jaioberriari arreta eskaintzeari dagokionez jardunbide seguruak ikasi eta aplikatzeko.**

2014az geroztik, prozesuaren segurtasuneko talde korporatibo bat dago, eta bertan arlo asistentzial eta kudeaketa-maila desberdinetako **emaginek, ginekologok, pediatrek eta erizain pediatrikoek** parte hartzen dute.



Egin klik irudian, argitaratutako protokolo korporatiboak kontsultatzeko

JARDUNALDI BIRTUALA: AMAREN ETA JAIOBERRIEN ARRETA SEGURUA

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak, Asistentziaren Kalitaterako Espainiako Elkartearekin lankidetzan, jardunaldi bat antolatu du irailaren 17rako. Jardunaldi horretan, **estatu mailan azaldu eta aitortuko dira** amaren eta jaioberriaren segurtasunarekin zerikusia duten **praktika seguruak**.



Hemendik
jardunaldiaren orrira
sar zaitezke

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Jaioberrien Unitateko profesionalek aurkeztutako **“Jaioberrien Segurtasunaren alde taldean lan egiten, jaioberrien sepsia murrizteko”** izenburuko jardunbide seguru onaren komunikazioak **JARDUNBIDE SEGURUEN URREZKO SARIA** lortu du, ebaluazio-epaimahaiaren kalifikaziorik altuenarekin.

ZORIONAK!

Osakidetza aurkeztutako gainerako proiektuak Osasun Publikoaren Espainiako Aldizkariaren gehigarrian argitaratuko dira:

- Erditzerako, erdiberriaroko eta jaioberriarentzako arretan praktika seguruak ezartzea. Segurtasuneko talde korporatiboa.
- Zesarea Ondoko Erdiberriaroko Unitatea (ABU, erditze eta zesareetako jaioberriaren segurtasun klinikoaren testuinguruan). Donostialdeko ESia.
- Arrisku txikiko erditzearen ondoren ospitalean alta goiztiarra emateko programa. Arabako ESia.

KIRURGIA SEGURUA

Markatzea, hanka sartzea baino hobe



OMEk bederatzi gomendio eman zituen 2007an, asistentzia sanitarioarekin zerikusia duten kalteak murrizteko.

OMEren laugarren gomendioarekin bat eginez (hau da, “prozedura zuzena gorputzeko toki egokian egitea”) eta kirurgiari lotutako segurtasun-gertaeren arriskua minimizatzen laguntzeko, Kirurgia Segururako erreferentziazko talde korporatiboak, zerbitzu-erakundeetako kirurgia-taldean adostasunarekin, **“Ebakuntzak okerreko leku kirurgikoan egitea ekiditeko protokoloa”** egin du.

Ebakuntza bat okerreko tokian egitea gertaera larria da, eta zenbait gauza egiaztatuz ekidin daiteke. Horrenbestez, okerreko gorputz-tokiko kirurgia, okerreko prozedura edo/eta okerreko pazienteari egitea prebenitu beharreko arazoak dira.

Ebakuntza bat okerreko tokian egitea gertaera larria da, eta zenbait gauza egiaztatuz ekidin daiteke. Horrenbestez, okerreko gorputz-tokiko kirurgia, okerreko prozedura edo/eta okerreko pazienteari egitea prebenitu beharreko arazoak dira.

SARS-COV-2AREN TRANSMISIOA PREBENITZEKO NEURRIAK

COVID-19aren ondoriozko pandemiak Osakidetzako Zerbitzu Erakundeetako gaitasun asistentzialak indartzera behartu du.

Inguru asistentzialetan, infekzioen prebentzio eta kontrolerako lehentasunetako bat da **SARS-CoV-2aren transmisioa prebenitzeko neurriak aplikatzea**.

2020ko ekainean, jarduera asistentzialari berriz ekin zitzaionean, COVID-19a minimizatzeko plan bat garatu zen, zenbait gomendioarekin, hala nola pazienteek, laguntzaileek eta profesionalak **prebentzio-neurriak betetzen dituzten behatzeko eta jarraipena egiteko txandak egitea**.



Egindako txandetan **egiaztapen-zerrendak** erabili dira, pazientearen segurtasunerako tresnarik ezagunenetako bat, alegia. Horri esker, aurrez ezarritako baldintzak betetzen direla kontrolatu ahal izan da eta **sistemaren segurtasun-hesiak indartu dira**.

Jarduera hori Erakundeetako profesionalen ahaleginari esker egin ahal izan da, eta eskerrak eman nahi dizkiegu ezohiko baldintza horietan egindako lanagatik.

2020KO MEDIKAZIO-AKATSEI BURUZKO ISMP BULETINA

Segurtasun-gertakarien nondik norakoak ezagutzea funtsezkoa da murriztuko direla bermatzeko.

Ildo horretan, eta jakinarazitako gertakarien analisiek eta hainbat argitalpenek iradokitzen dutenez, gertakari horien jatorria **medikazioarekin dago** lotuta gehienetan.



Duela gutxi, ISMPk (Medikamentuen Erabilera Segururako Institutua) buletin buletin bat argitaratu du, **2020. urtean pazienteentzat ondorio larrienak izan dituzten 10 medikazio-errore motak** jasotzen dituenak. [Egin klik hemen buletina ikusteko](#)

Azpimarratu behar da gertakari errepikakorrak direla eta kasu bakoitzean adierazten diren praktika seguruak ezarri saiestu edo minimiza daitezkeela.



Zerbitzu batzuetan, berezko ezaugarriak direla-eta, segurtasun-intzidenteak gertatzeko probabilitatea handiagoa da, larrialdi-zerbitzuetan, esaterako.

Hala adierazi zuen duela 10 urte argitaratutako EVADUR azterlanak (Larrialdietako zerbitzuetako asistentziari lotutako kontrako gertaeren azterketa).

Horretaz jabetuta, eta profesionalek beraiek ere hala eskatuta, ekintza-ildo espezifiko bat txertatu zen **Larrialdietako zerbitzuetarako Pazientearen Segurtasun Estrategian**.

2018az geroztik, talde korporatibo bat dago, eta bertan zerbitzu horietako profesionalek parte hartzen dute. Profesional horiek jardunbide egokiak landu dituzte, hala nola **infekzioen prebentzioari, pazientearen transferentziei eta medikazioari dagokienez hedatzear daudenak**.

ERAGINDAKO GERNU-INKONTINENTZIAREN PREBENTZIOA

Xurgatzaileak erabiltzea ohikoa da gernu-inkontinentzia duten pazienteekin, baina horrek **baditu arriskuak**.

Literaturak agerian uzten du **xurgatzaileak gehiegi eta batzuetan arrazoirik gabe erabiltzen direla arlo sanitarioan**. Modu desegokian erabiltzeak eragin negatiboak izan ditzake paziente helduen autoestimuan, bizi-kalitatean eta independentzian, eta, horrez gain, erabilera horrek lan-karga handitzen du eta kontrako gertaerak sor ditzake.

Bada, diziplina anitzeko profesionalek osatutako lantalde batek “Eragindako gernu-inkontinentzia prebenitzeko jardunbide egokiak” dokumentua egin du. Bertan, gernu-ihesa diagnostikatzeko eta maneiatzeko zenbait alderdi jaso dira, baita xurgatzaileak erabiltzaileari buruzko gomendioak ere.

